

GOTZAINEN AGIRIA

Eleizan arduradunak daukaguz eta oneik Kristo'ren izenean zaintzen dabe curen erria edo artaldea. Guk onartzen doguz Aita Santua eta Eleizbarrutiko Gotzaiña. Bitartean dagozanak, Goi-Gotzaiñak eta Gotzain-Batzordea ez dira gure artzaiñak eta curen agiriak ez gaitue bear-tzen.

Gure erri-agintariak bein baten Erroma'ra joan ziran aolkua eskatzen eta ez ebezan onartu erkal edo errepublikeagaz batera jokatzeko ebelako eta au izan zan curen erantzuna: "Jokabide ori kontzientziaren aurka ez dago, baiña "galdu egingo dozue".

Egin zan guda eta galdu be egin gendun. Ondoren lez, 500 abade erbesteratu ebezan eleizearen baimenarekin, Gotzaiña bera be erbesteratu eben eta ordeko lotsagarri bat ekarri euskuen, Javier Lauzirika jauna. Millak erritar izan ziran erbesteratuak eta asko eta asko eriotzara epai-tuak eta eraillak.

Ona emen Lauzirika Gotzain eta arduradunaren berba iguingarriak:

MUNGIAN - 1938N. URTEAN

"Yo soy un general más a las órdenes del Generalísimo para aplastar el nacionalismo. (Mons. Javier Lauzirika'k)".

"Zuen obispo naz, Jesukristo'ren izenean berba egiten dautzuet: Gure ama España da eta ez dogu gura beste ama zantzarrrik". Mons. Javier Lauzirika'k.

Ni antxe izan nintzan eroan ninduelako eta entzun nebazan itz orreik, baiña amaika urtekoa nintzan eta nire irudimenak gogoratzen dau, ez ostera gomutamenak.

Orduan be España'ko Gotzaiñak irabazlearen alde jarri ziran eta ori egiten dabe beti Toledo'ko Kontzilioak egin ziranetik, baiña gaur gure Gotzain lez euren aldekoak eta gure arerioak jarten dabez.

Gogoratu izenak: Mons. Ballester, Mons. Morcillo, Mons. Gurrutzieta. Gurrutzieta monseñor onen aldiari ekintza gogorak egin genduzan, Zamora'ko abade-espetze latsagarri aretan amaitu ziranak, eta arrezkero 25 urte inguruan gotzain egokiak lortu genduzan: Mons. Zirarda, Mons. Añoberos, Mons. Uriarte, Mons. Larrea. Oneik euskaldunak eta egokiak ziran. Gaur Mons. Blazquez daukagu eta emengoia izan ez arren, naiko ondo jokatzeko dau eta Mons. Etxenagusia dau Gotzain-laguntzaille euskaldun lez.

Oraintxe España'ko Gotzaiñak izenpetu daben agiriari, abertzaletasunaren aurka agiri dan idazkiari, Gotzain euskaldunak ezetza emon dautsoe. Orregaitik gure gotzaiñai lotuta geratzen gara pozik. Ori da gauzarik pozgarriena. Baiña Gotzaiñak aurka ba'legoz be, gu isilik eta geurean geratuko gintzakez: Errigintzako eritxiak fede bidean askeak dira eta izan bear dabe.

Naiko isilik eta albo baten geratzen jaku Iruña'koa. Ba-dakigu bere eritxia arlo onetan eta ba-dakigu orregaitik ekarri dabena euskalduna izan ez arren.

Beste alde batetik, euskaldunok antxiñatik onartu dogu fede eta bide orretatik jarraituz sendotzen dogu erri-maitasuna edo abertzaletasuna.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!